

Bide luzea berdintasunerantz: Euskadiko emakumeak XX.mendean

Material didaktikoa

Nazio Batuen Erakundearen arabera, neska eta emakumeen eskubideak giza eskubideak dira. Bizitzaren arlo guztiak biltzen dituzte eskubide hauek, besteak beste, osasuna, hezkuntza, parte-hartze politikoa, ongizate ekonomikoa edota biolentziarik ez jasatea.

Jarraian datorren kuadroari begiratu. Kuadroan agertzen diren hitzak erakusketan irakurri daitezke eta emakumeentzako eskatzen diren eskubideak dira. Bilatu eta azpimarratu erakusketan zeintzuk diren gehien errepikatzen diren hitzak.

Aurkitu argazki hauek. Argazkien azpian jarri zein urtetan ateratakoak diren eta azpiko taulan agertzen diren adjektiboetatik argazki hauentzat egokienak direnak aukeratu.





Tradizionala . moderna . etxekoa . langilea . baserritarra .
Kaletarra . independentea . etxeko Andrea . ikasia . elizkorra
. aurrerakoia . menpekoa . askatua

Erakusketan zehar bilatu 6 argazki ezberdin bakoitzari gutxienez aurreko ariketako hiru adjektibo jartzeko. Gogoratu argazkiaren izenburuaren aldamenean data idatzi behar dela.

1. A
2. B
3. C
4. D
5. E
6. 6

Bilatu 1900.urteko alfabetatze datuak, 1930ean goi mailako ikasketak burutu zituzten emakumeen kopurua eta gaur egunekoa. Datuak aldatu direla uste duzu? Nola?

Espaniako Bigarren Errepublikan zehar gertatu ziren aldaketek emakumeen eskubideen inguruan hobekuntzak ekarri zituzten. Zure ustetan, zeintzuk izan ziren garrantzitsuenak? Zergatik?

Aurkitu emakumeei boto eskubidea lehen aldiz onartu zitzaien data eta Euskal Herrian noiz eman zuten emakumeei botoa aurrenekoz.

Gerra Zibila emakumeei dagokienean ere, hondamendia izan zen. Erakusketak zergatik dio errepresio bikoitza jasan zutela? Irakurri Queipo de Llanoren hitzaldia eta pentsatu zerri egiten zion erreferentzia. Begiratu argazkiei eta aukeratu errepresioa zeinek irudikatzen duen hobeto.

Irakurri testua eta azaldu zein izan zen frankismoak ezarri zuen emakume katolikoaren eredua.

Zer gertatu zen 1960ko hamarkadatik aurrera? Ikusi argazkiak eta irakurri testuak.

Zure ustetan, zeintzuk ziren tradizionalki emakumeei egozten zitzaizkien lanak?



Zer eskatu zuten 1970eko hamarkadako emakumeek? Lortu al zuten eskatzen zutena? Zer da aldatu behar dena?

Begiratu Euskal Herriko emakume parlamentarien bilakaeraren taula. Zer gertatu da?

Zeintzuk dira zure ustetan euskal gizarteak etorkizunean jorratu behar dituen erronkak emakumeen eskubideen inguruan?

Hillary Clintonek esana: "Giza Eskubideak Emakumearen Eskubideak dira eta Emakumeen Eskubideak Giza Eskubideak dira. Zure ustetan, zer esan nahi zigun horrekin?"
